

2. GAIA. SEKTORE PUBLIKOA ETA AURREKONTUA

2.1. Sektore Publikoa: jarduerak, agenteak eta neurketa

2.2 Administrazio Publikoen Kontuak

2.3 Sektore Publikoaren aurrekontua

2.4. Aurrekontuaren sailkapenak

2.5. Defizit publikoa: kontzeptuak

2.1. SEKTORE PUBLIKOA: Jarduerak, agenteak, neurketa

A. JARDUERAK ETA AGENTEAK

Sektore Publikoa?



Tradizionalki:

➤ **ESTATUAREN ADMINISTRAZIOA BERMATZEAZ**
arduratzen den agente-multzoa

Funtzio tradizionalak

- Administrazioaren zerbitzu orokorrak
- Defentsa
- Justizia
- Herri-Seguratasuna
- Kanpo-Harremanak...

Denborarekin, 2 FUNTZIO BASIKO

**GIZARTE-ONGIZATE
POLITIKA
GARATU**

**ZERBITZU
AMANKOMUNAK
ANTOLATU**

Gizartean bizi-baldintza
duinak bermatu nahian

Beste modu batera,
gizartearentzat desiragarri
den neurrian hornituko ez
liratekeenak

**-PENTSIOAK
-LANGABEZIA
-POBREZIA
-ETXEBIZITZA
-SANITATEA
-HEZKUNTZA
-...**

**-AZPIEGITURAK
-IKERKETA ETA GARAPEN
JARDUERAK
-...**

Funtzio horiek betetzen dituen AGENTE-MULTZOA



**ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK,
SP ADMINISTRATIBOA edo SP “ZENTZU HERTSIAN”**



AAPPen DEFINIZIOA, EUROPAKO KONTU SISTEMAN



“AAPPak, oinarrizko funtzio bezala

1) salmentara zuzenduko ez diren ondasun eta zerbitzuen hornidura eta/edo

2) errenta / aberastasunaren birbanaketa operazioak burutzea

duten erakundeek osatzen dituzte, beren baliabide iturririk garrantzitsuena beste sektoreetako unitateek (enpresek, familiek...) egindako nahitaezko ordainketak (hau da, zergen ordainketa) izanik”

ESPAINIAN, AAPPen AGENTE OSATZAILEAK

ESTATUA:

- a) **Estatuaren Administrazio Orokorra:** Gobernua, Ministerioak ,...
- b) **Konstituzio-organoen Administrazioa:** Errege-Etxea, Gorte Orokorrak, Auzitegi Konstituzionala, Kontu-Auzitegia

ADMINISTRAZIO ZENTRALAREN ERAKUNDEAK

- Erakunde Autonomoak:

Estatistika-Institutu Nazionala, Turismo-Institutu Nazionala, Emakumearen Institutua, Liburutegi Nazionala, Trafikoko Buruzagitza ...

-**Agentzia Estatalak:** Politika publikoak ebaluatzeko Agentzia, Meteorologiako Agentzia Estatala ,

-**Beste erakunde publiko batzuk:** Zerga-Administrazioko Agentzia, Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua, El Prado eta Reina Sofia Museoak ,...

ADMINISTRAZIO
ZENTRALA

LURRALDE-
ERAKUNDEAK

AUTONOMIA-ERKIDEGOAK

UDAL -KORPORAZIOAK

GIZARTE-
SEGURANTZAREN
ADMINISTRAZIOA


- a) **Erakunde Kudeatzaileak eta zerbitzu Amankomunak:** INSS, INGESA, IMSERSO , ISM, : GS-ren Diruzaintza Orokorra, mutualitate laguntzaileak
- b) **SEPE:** Enplegurako Zerbitzu Publikoa
- c) **FOGASA:** (Alokairuen Bermerako Funtsa)

*Beraz, AAPPak, enpresa-jarduerak ez diren
jarduera publikoez arduratzen dira.*

Enpresa-jarduerak barneratzeko:



**SEKTORE PUBLIKOA
“ZENTZU ZABALEAN”**




**ADMINISTRAZIO
PUBLIKOAK
edo
SEKTORE PUBLIKOA
“zentzu hertsian”**

+

**SEKTORE PUBLIKO
ENPRESARIALA**

SEKTORE PUBLIKO ENPRESARIALAREN (ENPRESA-PUBLIKOEN) definizioa, EUROPAKO KONTU SISTEMAN



“Enpresa publikoak,

1) merkatuan salduko diren ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean diharduten

eta

2) kontrol publikoaren pean dauden edo jabetza publikoa duten erakunde, zerbitzu eta enpresak dira”

AGENTEAK



Enpresa Publiko EZ FINANTZARIOAK:

Turismo-paradoreak, Posta-zerbitzu publikoa, EFE Agentzia, AENA, Estatuko Loteriak ...

ERAKUNDE PUBLIKO FINANTZARIOAK:

- Espainiako Bankua
- Kreditu-erakundeak eta finantza-bitartekari publikoak: ICO, Banku eta Aurrezki-kutxen gordailuen bermerako funtsak..
- Aseguru-Erakundeak: Aseguruen Konpentsaziorako Partzuergoa,...

EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA, ZENTZU HERTSIAN

ADMINISTRAZIO OROKORRA:

- a) EUSKO JAURLARITZA (lehendakaritza + sail ezberdinak)
- b) EUSKO LEGEBILTZARRA

c) HAINBAT SAIL: Herri-Kontuen Euskal Epaitegia, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan-Harremanen Kontseilua...

**E.A.Eren SEKTORE
PUBLIKOA**

ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ERAKUNDEAK

:

-Erakunde Autonomo Administratiboak:

Habe, Eustat, Emakunde, Lanbide...

-Beste erakunde publiko batzuk:

Osakidetza, EITB...

**LURRALDE
HISTORIKOEN
SEKTORE PUBLIKOA**

LLHhen Administrazio Forala:

- Foru Aldundiak
- Biltzar Nagusiak

ERAKUNDE AUTONOMO FORALAK

**UDALEN SEKTORE
PUBLIKOA**

B. SEKTORE PUBLIKOAREN NEURKETA

Zein da Sektore Publikoaren pisua ekonomian?

- Erantzun zaila
 - Jarduera publiko askok ez dute moneta-izaera
 - Datu homogeneoak falta, sektore publikoaren erakundeen aldaketengatik
- Ohiko neurketa modua: Errazago neur daitezkeen moneta-izaera duten jarduerak aztertu, hau da, **Administrazio Publikoen aurrekontu-jarduerak**
- Nazioarteko konparaketetan **INDIZE AGREGATU** erabilienak, jarduera publikoaren garrantzi erlatiboa ezagutzeko:
 - **Gastu ez finantzarioak / BPG**
 - **Sarrera ez finantzarioak / BPG**

INDIZE AGREGATUAK

	GASTU EZ FINANTZARIOAK / BPG		SARRERA EZ FINANTZARIOAK / BPG	
	Espainia	EB	Espainia	EB
2006	38,3	46,2	40,5	43,6
2008	41,1	46,3	36,7	43,8
2010	46,6	46,9	36,2	43,5
2012	48,1	49,0	37,6	44,7
2014	44,3	48,1	38,9	45,1
2016	42,5 ^(*)	48 ^(*)	38,0 ^(*)	46,2 ^(*)

Iturria: Eurostat . () Estimazioak*

•Informazioa sakontzeko: **INDIZE DESAGREGATUAK**

GASTU EZ FINANTZARIOAK:
<i>Azken gastuak</i>
Gastu arruntak (langileei ordainketak, kontsumoak...)
Kapital gastuak (inbertsioak)
<i>Transferentzia gastuak</i>
Transf arruntak (pentsioak, bekak, enpresei subentzioak...)
Kapital transferentziak (inbertsioak burutzeko)
SARRERA EZ FINANTZARIOAK:
<i>Zerga-sarrerak (Zerga-presioa= zerga- sarrerak/BPG)</i>
Zerga zuzenak
Zeharkako zergak
Gizarte kotizazioak
<i>Bestelako sarrerak</i>

2.2. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN KONTUAK

- Kontabilitate Nazionalaren laguntzaz, AAPPen jarduerari buruzko **informazio gehiago** lor dezakegu
- Kontabilitate Nazionalari esker, ekonomiako **sektore ezberdinek** (Etxeak, Irabazi Animorik Gabeko Erakundeak, Sozietate Ez Finantzarioak, Finantza-Erakundeak, AAPP eta Gainerakoak) **makro-magnitudeen eraketan** (BPG, Kontsumoa, Aurrezkia,...) laguntzen dutena jakin dezakegu.
- Kontabilitate Nazionalean, **AAPP jarduera ekonomikoa** hiru kontuen bidez laburbiltzen da:



ERAGIKETA ARRUNTEN KONTUA

BALIABIDE ARRUNTAK

A) Zergak

- Errenta eta ondarearen gainekoak
- Ekoizpen eta inportazioen gainekoak
- Gizarte-Kotizazioak

B) Jasotako transferentzia arruntak (Europako Gizarte-Funtsa, isunak...)

C) Bestelako baliabide arruntak

- Jabetzaren errentak (interesak, dibidenduak Alkilerrak...)
- Ekoizpenaren baliabideak (salmenta-sarrerak, tasak, prezio publikoak...)

ERABILERA ARRUNTAK

D) Emandako transferentzi arruntak

- Gizarte-prestazioak
- Subentzioak
- Zor Publikoaren interesak
- Bestelako transferentzia arruntak

E) Kontsumo Publikoa

- Langileei ordainketak
- Erosketak
- KFK

F) **AAPPen AURREZKI (+) edo DESAURREZKI (-) GORDINA** (Eragiketa Arrunten Kontuaren saldoa)

*BALIABIDE ARRUNTAK – Emandako Transferentzi Arruntak =
= A)+B)+C) – D) = **AAPPen ERRENTA GORDIN ERABILGARRIA***

AAPPen ERRENTA GORDIN ERABILGARRIA – Kontsumo Publikoa = AAPPen AURREZKI (+) edo DESAURREZKI (-) GORDINA

KAPITAL-KONTUA

KAPITAL-BALIABIDEAK

- 1) **F) AAPPen AURREZKI edo DESAURREZKI GORDINA**
- 2) **Kapitalaren g/ Zergak**
Oinordetza eta Dohaintzak..
- 3) **Jasotako Kapital-Transferentziak**

KAPITAL-ERABILERA

- 4) **Inbertsio Publikoa (Kapital Finkoaren Eraketa Gordina)**
- 5) **Emandako Kapital-Transferentziak**
- 6) **AAPPen FINANTZAKETA-AHALMEN (+) edo BEHARRA (-) (Kapital Kontuaren saldoa)**

*KAPITAL BALIABIDEAK(1+2+3) – KAPITAL ERABILERA (4+5)
= AAPPen FINANTZAKETA-AHALMEN (+) edo BEHARRA (-)
(Kontabilitate Nazionalaren terminoetan superabit edo defizita)*

FINANTZA-KONTUA

FINANTZA-BALIABIDEAK

- 1) **Finantza-pasiboen aldaketa garbia**
(jaulkitako pasiboak – amortizatutako pasiboak)

FINANTZA-ERABILERA

- 2) **Finantza-Aktiboen aldaketa garbia**
(erositako aktiboak – amortizatutako aktiboak)
- 3) **FINANTZA-AURREZKI GARBIA**


FINANTZA -BALIABIDEAK – FINANTZA-ERABILERA = FINANTZA-AURREZKI GARBIA (Kapital-Kontuaren saldoarekin egiten du bat baino alderantzizko zeinuarekin)

2.3. SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTUA

Kontzeptua, ezaugarriak eta aurrekontu prozesua


- **DEFINIZIOA (NEUMARK, 1950)** : “Aurrekontua, printzipioz nahitaez betebeharreko gastuen aurreikuspenen eta gastu horiek finantzatzeko estimatutako diru-sarreraren laburpen sistematiko eta zifratua da, denboraldi erregularretan landu eta betearazten delarik”.
- **EZAUGARRIAK:**
 - Alde aurrea edo aurrerapena
 - Kuantifikazioa
 - Behartzea (derrigorrezkotasuna)
 - Erregularutasuna


ALDEAURREA:




- Aurreikuspena
- Etorkizuneko operazioak (hurrengo urtea)

KUANTIFIKAZIOA




- Zifratua (kontabilitate-hizkuntza)
 - Kontableki orekatua
- 
- Oreka ekonomikoa**
(Defizit eta superabit ekonomiakoak egon daitezke)

BEHARTZEA:



- Derrigorrezkotasuna gastuetan (muga maximoa)
- Sarreretan ez: bilketaren estimazioak

ERREGULARTASUNA:



- Erregularaki landu eta betearazi
- Aurrekontu ekitaldiaren epea: urtea

AURREKONTU PROZESUA

Kronologikoki lau etapa bereizten dira:


1. ERAKETA

2. EZTABAIDA eta ONARTZEA

3. BETETZEA


4. LIKIDAZIOA eta KONTROLA

1. ERAKETA




- Gobernuak Estatuaren **Aurrekontu Orokorren Legearen proiektua** eratzen du.
- Alde aurrez, Gobernuak, aurrekontuaren egonkortasunerako helburuak eta gastu ez finantzarioaren muga maximoa onartu ditu (urtearen lehen lauhilekoan)
- Aurreko akordioak errespetatuz, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak **gastuaren banaketarako irizpideak eta diru-sarreraren aurrekontua onartzen ditu** (gastu organo ezberdinen eta ministerioen arteko estimazio, analisi eta dokumentazio-elkartruke sakon baten ondoren).
- Ekonomia-tekniken aplikazioa** batez ere etapa honetan ematen da.
- Orokorrean, 6 hilabetez luzatzen da. **Urriaren 1ean** Gobernuak onartuta izan behar du.
- Bestalde, Europako Batzordeak abenduaren 1ean baino lehen lege-proiektuaren irizpen bat onartu behar du, eta Egonkortasun eta hazkunderako Itunean ezarritako betebeharren ez-betetze larriren bat egiaztatuz gero, berrikuste bat eska dezake.

2. EZTABAIDA eta ONARTZEA



- Kongresuan lehenik, eta Senatuan gero, lege-proiektua **eztabaidatu** egiten da eta **zuzenketak eskatu** ahal dira.
- **Hiru hilabetez** luzatzen da
- Diputatuen Kongresuak **Urtarrilak 1ean baino lehen** onartu behar du .
- Data horretan **ez badago** onartuta, automatikoki **aurreko urteko aurrekontua** luzatuko da.

3. **BETETZEA**




- **Aurrekontuan onartutako gastuen eta operazioen betetze prozesua da**
- **Urtarrilak 1ean hasi eta urte naturalean zehar luzatzen da.**
- **Nahiz eta Aurrekontu Legearen edukia nahitaez bete behar den, egoera berezi batzuetan onartutako zifrak alda daitezke (ezohiko kredituak, zabalketak ...)**
- **Etaparen honetan aurrekontuaren betetzearen kontrola “Estatuko Administrazioaren Esku-hartze Orokorrak” - “Intervención General de la Administración del Estado” delako erakundeak egiten du (barne-kontrola)**

4. LIKIDAZIOA eta KONTROLA

- Aurrekontua **abenduak 31an** likidatzen da eta **kanpo-kontrolaren etapa hasten** da.
- Urriak 1ean baino lehen, Kontu-Auzitegiak (Gobernuarekiko erakunde independentea) Estatuaren Kontu Orokorra izan beharko du (*Estatuko Administrazioaren Esku-hartze Orokorrak* bidalita)
- **Kontu-Auzitegiak Estatuaren Kontu Orokorra aztertu eta egiaztatzen du, 6 hilabetetako epean.**

- **Aurrekontu-prozesuak beraz hiru bat urte irauten du:**



- *A* → Egonkortasunerako helburuak eta gastuaren muga maximoa onartu
- *B* → Eraketa
- *C* → Eztabaida eta onarketa
- *D* → Betetzea
- *E* → Estatuko Administrazioaren Esku-hartze Orokorrak *Estatuaren Kontu Orokorra osatu*
- *F* → Kanpo kontrola

2.4. AURREKONTUAREN SAILKAPENAK

AURREKONTUAREN FUNTZIOAK:

-Jarduera publikoen **kontrola**

-Erabaki publikoen **eraginkortasuna eta efektibitatea** bermatu, finkatutako helburuak kostu minimora lortzen direla ziurtatzeko



SAILKAPENAK

Tradizionalki:

-**Sailkapen organikoa:**

-gastuak, euren erakunde kudeatzaileen arabera sailkatuta.

-Soilik **Kontrol funtzioa** (nork eta zenbat gastatzen den)



BIDE-AURREKONTUA

Denborarekin:

-**Sailkapen ekonomikoa**

- Gastu eta sarrerak, kontabilitate nazionalaren arabera eta kontabilitate nazionalaren arabera
- Jarduera publikoak, jarduera ekonomiko nazionalen duen eragina aztertzeke baliagarria

-**Sailkapen funtzionala eta egitarauen arabera** (helburuen arabera)



HELBURUEN AURREKONTUA
(2 funtzioak)

Espainian, ESTATUAREN AURREKONTU OROKORREN SAILKAPENAK:

– Organikoa:

Gastu organoen arteko gastu kompetentzien banaketa.
Nork gastatzen du?

– Ekonomikoa:

Gastu eta sarrera mota ezberdinak, kontabilitate nazionalaren arabera.
Nola gastatzen da? Nola lortzen dira sarrerak?

– Funtzionala eta egitarauen arabera:

Zertarako gastatzen da? Zein helburu lortzeko? 2 mota:

- **Gastu-politiken arabera** (Sektore Publikoaren jokaera arloen arabera)
- **Talde funtzionalen arabera** ⇒ (funtzioak, azpi-funtzioak, egitarauak...) → informazio gehiago

Nork gastatzen du?

PRESUPUESTOS GENERALES DEL ESTADO PARA EL AÑO 2011
RESUMEN POR SECCIONES (Capítulos I a IX)
 (en millones de euros)


SECCIONES	PRESUPUESTO 2011	% sobre el total
01 Casa de S.M. el Rey	8,43	0,00
02 Cortes Generales	216,42	0,06
03 Tribunal de Cuentas	62,22	0,02
04 Tribunal Constitucional	26,44	0,01
05 Consejo de Estado	10,48	0,00
06 Deuda Pública	73.994,76	20,40
07 Clases Pasivas	10.489,33	2,89
08 Consejo General del Poder Judicial	74,22	0,02
12 M° de Asuntos Exteriores y Cooperación	2.708,24	0,75
13 M° de Justicia	1.801,37	0,50
14 M° de Defensa	8.249,89	2,27
15 M° de Economía y Hacienda	4.508,55	1,24
16 M° del Interior	8.635,75	2,38
17 M° de Fomento	8.989,13	2,48
18 M° de Educación	2.996,33	0,83
19 M° de Trabajo e Inmigración	39.885,61	10,99
20 M° de Industria, Turismo y Comercio	6.687,92	1,84
21 M° de Ciencia e Innovación	5.828,65	1,60
22 M° de Política Territorial y Admón. Pública	167,18	0,05
23 M° de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino	11.147,88	3,07
24 M° de Cultura	839,31	0,23
25 M° de la Presidencia	2.755,72	0,76
26 M° de Sanidad, Política Social e Igualdad	776,29	0,21
31 Gastos de diversos Ministerios	2.132,70	0,59
32 Otras Relaciones Financieras con EE.TT.	1.854,02	0,51
33 Fondos de Compensación Interterritorial	1.074,37	0,30
34 Relaciones Financieras con la U.E.	12.117,37	3,34
35 Fondo de contingencia	2.440,44	0,67
36 Sistemas de financiación de EE.TT.	28.033,86	7,73
60 Seguridad Social	124.275,17	34,26
PRESUPUESTO DEL ESTADO	362.788,05	100,00

SAILKAPEN EKONOMIKOA:
DIRUSARRERAK
Nola lortzen dira sarrerak?


PGE 2011

21

PRESUPUESTOS GENERALES DEL ESTADO PARA EL AÑO 2011
INGRESOS CONSOLIDADOS
DISTRIBUCIÓN POR CAPÍTULOS
 (en millones de euros)



PRESUPUESTOS GENERALES DEL ESTADO PARA EL AÑO 2011
GASTOS CONSOLIDADOS
DISTRIBUCIÓN POR CAPÍTULOS
 (en millones de euros)



SAILKAPEN FUNTZIONALA edo EGITARAUEN ARABERAKOA

Zertarako gastatzen da? Zein helburu lortu nahian?

PRESUPUESTOS GENERALES DEL ESTADO CONSOLIDADOS PARA EL AÑO 2011 RESUMEN POR POLÍTICAS DE GASTO (en millones de euros)

	Dotación	% sobre los capítulos I a VIII
SERVICIOS PÚBLICOS BÁSICOS	19.731,14	
Justicia	1.713,25	
Defensa	6.868,20	
Seguridad Ciudadana e Instituciones Penitencias	8.401,96	
Política Exterior	2.747,73	
GASTO SOCIAL (1+2)	183.308,13	
1.-Actuaciones de Protección y Promoción social	175.105,57	
Pensiones	112.215,76	
Otras prestaciones económicas	13.576,36	
Servicios Sociales y Promoción Social	2.521,58	
Fomento del empleo	7.329,10	
Desempleo	30.474,06	
Acceso a la vivienda y Fomento de la Edificación	1.218,11	
Gestión y Administración de la Seguridad Social	7.770,60	
2.-Prod. de bienes públicos de carácter preferente	8.202,56	
Sanidad	4.255,14	
Educación	2.843,43	
Cultura	1.103,99	
ACTUACIONES DE CARÁCTER ECONÓMICO	32.663,11	
Agricultura, Pesca y Alimentación	8.578,49	
Industria y Energía	2.800,81	
Comercio, Turismo y P.Y.M.E.	1.432,94	
Subvenciones al transporte	1.618,72	
Infraestructuras	8.837,12	
Investigación , Desarrollo e innovación civil	7.577,07	
Investigación , Desarrollo e innovación militar	1.009,29	
Otras actuaciones de Carácter Económico	808,67	
ACTUACIONES DE CARÁCTER GENERAL	80.289,14	
Alta Dirección	679,55	
Servicios de Carácter General	7.988,31	
Administración Financiera y Tributaria	1.410,10	
Transferencias a otras Administraciones Públicas	42.811,18	
Deuda Pública	27.400,00	
CAPÍTULOS I A VIII	315.991,52	
CAPÍTULO IX	46.796,53	
TOTAL CONSOLIDADO	362.788,05	

6,3

58,0

10,3

25,4

Estatuaren Aurrekontu Orokorrak?

Norenak?

SP “ESTATALA”renak, hau da,

SPa “ZENTZU ZABALEAN”,
agente hauek izan ezik:

-LURRALDE ERAKUNDEAK

-LURRALDEEN SP enpresariala

-Estatuak kontrolatutako Erakunde Pribatuak

Zer dira Estatuaren Aurrekontu Orokor **BATERATUAK?**



Barne organoen arteko transferentziarik gabekoa,
kontabilitate bikoitza ekiditeko

ADIBIDEA

Estatua:

Gastuak:

Azpiegiturak: 1.000

Justizia: 800

Kanpo Harremanak:400

GSri transferentziak:300

Diru-Sarrerak:

PFEZ: 1.300

BEZ: 1.200

Gizarte Segurantza:

Gastuak:

Pentsioak: 500

Diru-Sarrerak:

Gizarte-Kotizazioak:200

Estatuaren transf: 300

**Zein da bi agente
hauen arteko
aurrekontu
bateratua?**

2.5. DEFIZIT PUBLIKOA: Kontzeptuak


- Aurrekontuak kontabilitate-oreka izan arren, defizit edo superabita izan dezake
- Defizit/superabit kontzeptu ezberdinak izan ditzakegu, faktore ezberdinen arabera:
 - Kontuan hartu diren **erakundeen** arabera
 - Kontuan hartu diren **eragiketen** arabera
 - Gastu eta sarreren **kontabilizazio unearen** arabera
 - Inflaziogatikoko doiketak** egin diren ala ez
 - Abaguneari ala egiturari lotuak** izatearen arabera


*Kontuan hartzen diren **ERAKUNDEEN ARABERA**, Sektore Publikoa osatzen duten agente bakoitzaren aurrekontu-saldoa ezagutu daiteke.*

Estatuarena da azkarren eta modurik fidagarrien ezagutu daitekeena

*Nazioarteko konparaketetan **gehien erabiltzen dena Administrazio Publikoen saldoa** da, AAPP finantzaketa-ahalmen edo beharra, hain zuzen ere.*

- Kontuan hartzen diren **ERAGIKETEN ARABERA**, hiru kontzeptu ezberdin bereiz daitezke:
 - **Finantzaketa-ahalmen edo beharra**
 - **Superabit edo defizit primarioa**
 - **Zorpetze-ahalmen edo beharra**





• **FINANTZAKETA-AHALMEN edo BEHARRA**

- **Kapital kontuaren saldoa** da, hau da, diru-sarrera eta gastu ez finantzarioen arteko aldea

- **Gastu arruntak eta kapital gastuak estali ondoren, fondoren egoera** adierazten du:

FA (+)
edo
FB (-)

=

Baliabide arruntak
+
Kapital baliabideak

-

Gastu arruntak
+
Kapital gastuak

- Kontabilitate nazionalaren terminoetan AAPPen jarduera ekonomikoaren **nazioarteko eta denbora arteko konparaketetan** erabiltzen den neurria da.

• ***SUPERABIT edo DEFIZIT PRIMARIOA***

-Finantzaketa-beharrari zor publikoaren interes-zama kendu ondoren gelditzen dena

$$\begin{array}{l} \text{Superabit edo} \\ \text{Defizit Primarioa } t \end{array} = \begin{array}{l} \text{FA}_t \text{ edo } \text{FB}_t \\ \text{(bere zeinuarekin)} \end{array} + \begin{array}{|c|} \hline \text{I}_t \\ \hline \end{array} \left\{ \begin{array}{l} > 0 \text{ SP} \\ < 0 \text{ DP} \end{array} \right.$$

non $I_t = i Z_{t-1}$

Beste modu batera:

-**Indarrean dagoen aurrekontuaren norabidea** ezagutzeko aurrekoa baino baliagarriagoa.

-Nazioarteko konparaketetan, aurrekontu-politikaren sostengarritasun mailaren adierazlea.

• **ZORPETZE-AHALMEN edo BEHARRA (garbia)**

-Finantza-pasiboen aldaketa garbia da

-Finantza-aktiboen aldaketa garbiari finantzaketa beharra batuz (edo finantzaketa-ahalmena kenduz) lortzen da:

*Zorpetze -Beharra (+)
edo zorpetze-ahalmena (-)
(termino garbietan)*

=

*Finantza-Pasiboen Aldaketa garbia
(jaulkitakoa – amortizatutakoa)*

=

*Finantza-Aktiboen Aldaketa garbia
(erositakoa – amortizatutakoa)*

-

FA(+) edo FB(-)

Eragiketa guztiei aurre egiteko (ez finantzario zein finantzarioei)
Sektore Publikoa termino garbietan **zenbat zorpetu behar den**
adierazten du.

•**ZORPETZE-AHALMEN EDO BEHARRA** ere termino **gordinetan** defini daiteke:

-Kasu honetan jaulkitako finantza-pasiboekin egiten du bat.

Ondorioz:

*Zorpetze -Beharra (+)
edo zorpetze-ahalmena (-)
(termino gordinetan)*

=

Jaulkitako Finantza-Pasiboak

=

*Amortizatutako
Finantza-
Pasiboak*

+

*Finantza-Aktiboen Aldaketa garbia
(erositakoa – amortizatutakoa)*

-

FA(+) edo FB(-)

Eragiketa guztiei aurre egiteko (ez finantzario zein finantzarioei) **Sektore Publikoak zenbat zor gehigarri jaulki behar duen** adierazten du.

Sarrera eta gastuen **KONTABILIZAZIO UNEA**ren arabera, bi saldo bereiz daitezke:

•**Kutxa-saldoa:**

•Ekitaldian burututako **kutxa-gastu eta kutxa-sarreraren aldeko aldea**, sarrera hori lortzeko eskubidea edo gastu hori jasateko beharra noiz sortu zen kontuan hartu gabe.

•Espainiako Bankuan **Altxorraren aurrezki-kutxan aldaketak** adierazten ditu, eta beraz sistemaren likideziaren adierazlea da.

•**Kudeaketa-saldoa:**

•**Eragiketen sortzapen-irizpidea** jarraituz gastu eta sarreraren arteko aldea, kutxan noiz agertuko diren kontuan hartu gabe.

•Kontabilitate Nazionalaren terminoetan finantzaketa-ahalmen edo beharrarekin egiten du bat.

INFLAZIOGATIKO DOIKETEN arabera:

- Inflazioak, finantza-aktibo eta pasiboen **balio errealean** eragiten du.
- Inflazioak, **nominal terminoetan zorrak dituztenen alde** jokutzen du, beren balio erreala murrizten baitu.
- Orokorrean Gobernuak zordunak izaten direnez termino garbietan, inflaziogatikoko doiketak burutu beharko dira beren **defizit erreala** ezagutzeko.

ABAGUNEARI ala EGITURARI lotuak izatearen arabera:

- Ekitaldi bateko defizit/superabita Sektore Publikoaren jokaeraren menpe (**egiturari loturikoa**) zein abaguneak gastu eta sarrera publikoetan duen efektuaren menpe (**abaguneari loturikoa**) dago.
- Aurrekontu politikaren norabidea ezagutzeko, **egiturari loturikoa** axola zaigu.
- Egiturari loturiko defizita **estimatzeko aukera ezberdinak** ditugu, guztien abiapuntua ekonomiaren ekoizpen maila potentzial eta errealaren arteko aldea izanik (ekoizpen gap-a)
- Aldagai horri sarrera eta gastu publikoen elastikotasun ezberdinak aplikatuz, abaguneari loturiko defizita lortzen da, eta hau defizit globalari kenduz, egiturari loturikoa.
- Prozedura hau aplikatuz:
 - ELGA : “Ziklikoki doitutako defizita”
 - EB: Doitutako aurrekontu saldoa
 - NMF: Egiturari loturiko saldo publikoa